

## MAILA AURRERATUA

### Ebaluazio irizpideak

Proba honen ebaluazioan, ondoko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

#### a) Eraginkortasun komunikatiboa

- Testua oztoporik gabe irakurtzea, irakurleak ahalegin berezirik egin gabe.
- Hizkuntzaren erabilera naturala.

#### b) Egokitasuna

Hots:

- Eginkizunari heldu ote zaion, hau da, zehaztutako puntuak garatu ote diren.
- Testua sortzeko finkatu den hitz kopurua edo luzera errespetatu ote den.
- Eskatutako formatuaren arabera egin ote den (gutuna, ohar informala, narrazioa, etab).
- Edukia proposaturiko gaiaren arabera ote den.

#### c) Koherentzia

Testuaren egitura semantikoari dagokio, hala informazioaren eta ideien antolaketari buruz, nola diskurtso-lerroa mantentzeko moduari buruz (sarrera, garapena eta bukaera).

#### d) Kohesioa

Informazioaren, ideien eta diskurtso-lerroaren antolaketa sintaktikoari dagokio. Kohesioa esaldiak eta paragrafoak osatu eta lotzeko moduan islatzen da. Horretarako hauek erabil daitezke:

- Lokailu logiko eta kronologikoak, hala esaldiak lotzeko, nola paragrafoak lotzeko.
- Erreferenteak adierazteko baliabideak erabiltzea (izenordainak, deiktikoak, lexiko-kateak, denboraren sekuentziazioa, etab.).
- Puntuazio zeinuen erabilera egokia.

#### e) Lexikoa

Eginkizunak eskatzen duen lexikoa modu egokian, naturaltasunez eta zehaztasunez erabiltzea da.

#### f) Morfosintaxia

Eginkizunak eskatzen duen morfosintaxia (hitzen morfologia zein egitura gramatikalak) modu egokian, naturaltasunez eta zehaztasunez erabiltzea da.

## IDAZMENA EBALUATZEKO TAULA

### Eraginkortasun komunikatiboa

10	Testua erraz irakurtzen da. Egileak testu argia eta zehatza idatzi du. Gainera, hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabili du.
8	Testua erraz irakurtzen da, inolako ahaleginik egin gabe. Egilearen intentzioa argi geratu da. Hizkuntza naturaltasunez eta ausardiaz erabili du.
6	Testua erraz irakurtzen da, eta irakurleak ahalegin gutxi egin behar izan du. Egilearen intentzioa, oro har, argi geratu da, eta, bete behar zuen helbururako, informazioa, hein handi batean, harira dator. Hizkuntza naturala da, eta apenas ageri da L1-en eraginaren arrastorik.
4	Testua, oro har, erraz irakurtzen da. Egilearen intentzioa argi geratu da, zenbait informaziok beste irakurketa bat behar izan duen arren. Hizkuntza, oro har, naturala da, nahiz eta L1-en eraginaren arrastoa ikusi den.
2	Testua ez da arin irakurtzen, eta irakurleak ahalegin handi samarra egin behar izan du, nahiz eta zenbait informazio edo ideia ulertu diren. Erabilitako hizkuntzak L 1-en eragin handia du.

### Egokitasuna eta koherentzia

10	Agindutakoa oso ongi bete du. Testua oso ondo egituraturik dago, eta erraz idatzi du. Testuaren formatoa, erregistroa eta totoa egokiak dira. Diskurtso-haria argia da eta guztiz koherentea da.
8	Agindutakoa ongi bete du. Testua ondo egituraturik dago, eta diskurtso-haria mantentzen da.
6	Agindutakoa argi burutu du eta onargarria da, nahiz eta harira ez datorren ideiarene bat egon. Testua, hein handi batean, ongi egituraturik dago, eta diskurtso-haria mantentzen da.
4	Ez du agindutakoa bete kalitateari, argitasunari eta informazio kopuruari dagokienez. Testuaren egitura egindako akatsek irakurketa zailtzen dute.
2	Ez du agindutakoa egitea lortu. Testuaren egitura egindako akatsek irakurketa zailtzen dute.

### Lexikoa

10	Lexiko oso zabala du, agindutakoari ederki egokitzen zaiona, testu-motari, irakurleari eta testuaren helburu eta edukari dagokienez.
8	Lexiko alorrean ezagutza maila handia erakutsi du, eta, hein handi batean, egoki eta zuzen erabili du.
6	Lexiko ezagutza nahikoa du agindutakoa garatzeko. Hitzak edo espide batzuk aukeratzean, akatsak ager daitezke, batez ere lexiko espezializatuagoa eskatzen duten egoeretan. Hala ere, akats horiek ez dute ulermena oztopatzen.
4	Lexiko ezagutza mailak, nahiz eta agindutakoa betetzeko nahikoa izan, mugatzen du adierazpena. Ulermena oztopatzen duten akats batzuk egin ditu.
2	Lexikoa mugatua da, eta akats eta errepikapen ugari dago. Akats hauek, batzuk oinarrizkoak, komunikazioa oztopatzen dute.

### Kohesioa

10	Testuak kohesio maila ona du. Erreferentzi baliabideak menperatzen dituela erakutsi du, eta, denbora eta lexiko aldetik, kohesio maila altua duela ikusi da. Lokailuak eta antolatzaileak ongi erabiltzeari esker, testu zatien arteko kohesioa egokia da, eta horrek ematen dio testuari behar duen koherentzia. Egileak garbi adierazi ditu bere iritzia. Puntuazio akatsik ez dago.
8	Erreferentzi baliabideen eta puntuazioaren erabilera, oro har, zuzena da. Informazioa eta ideiak ongi antolaturik daude.
6	Testuak kohesio maila ona du. Erreferentzi baliabideen erabilera egokia da agindutakoa betetzeko. Egon daitezkeen akatsek ez dute ulermena oztopatzen.
4	Testu zatien arteko erlazioak ez daude garbi. Lokailuen eta antolatzaileen erabileran zenbait akats daude, eta nolabaiteko kohesio lexikoaren falta somatu da. Honek zenbait elementu errepikaraztea eragiten du.
2	Kohesio faltak testuaren informazioa eta ideiak ongi antolatzea oztopatzen du. Erreferentzi baliabideetan dauden akatsek irakurketa eta ulermena zailtzen dituzte.

### Morfosintaxia

10	Baliabide gramatikal ugariaren jabe dela erakutsi du, eta oso zuzen erabili ditu. Apenas egon da akatsik.
8	Baliabide gramatikalak zuzen erabili ditu. Dauden akatsek ez dute ulermena oztopatzen.
6	Agindutakoa betetzeko adina baliabide gramatikal dituela erakutsi du, eta gainera zuzen erabili ditu. Hala ere, egitura zailagoak saihesteko joera somatu da. Egin dituen akatsek ez dute ulermena oztopatzen.
4	Agindutako puntu guztiak garatu ditu, baina baliabide gramatikalen zerrenda mugatua da. Egin dituen akats batzuk ez doazkio maila linguistiko honi, beheko maileri baizik.
2	Adierazi nahi izan duena argi geratu da, bakar-bakarrik hizkuntza oso sinplea (maila honi ez doakiona gainera) erabili duelako. Akats ugari daude, batzuk oso oinarrizkoak, irakurketa eta ulermena oztopatzen dituztenak.

**Gehienezko puntuazioa 100 puntu dira, eta horietatik 60 behar dira, bi idazlanen artean, gainditzeko. Azterketan 20ko eskala erabiltzen da; beraz, honekin batera puntuazioa 20ko eskalara pasatzeko taula ere badoakizu.**

**20ko eskalara pasatzeko taula**

	<b>20ko eskala</b>
100	<b>20</b>
98	<b>19,6</b>
96	<b>19,2</b>
94	<b>18,8</b>
92	<b>18,4</b>
90	<b>18</b>
88	<b>17,6</b>
86	<b>17,2</b>
84	<b>16,8</b>
82	<b>16,4</b>
80	<b>16</b>
78	<b>15,6</b>
76	<b>15,2</b>
74	<b>14,8</b>
72	<b>14,4</b>
70	<b>14</b>
68	<b>13,6</b>
66	<b>13,2</b>
64	<b>12,8</b>
62	<b>12,4</b>
60	<b>12</b>
58	<b>11,6</b>
56	<b>11,2</b>
54	<b>10,8</b>
52	<b>10,4</b>

	<b>20ko eskala</b>
50	<b>10</b>
48	<b>9,6</b>
46	<b>9,2</b>
44	<b>8,8</b>
42	<b>8,4</b>
40	<b>8</b>
38	<b>7,6</b>
36	<b>7,2</b>
34	<b>6,8</b>
32	<b>6,4</b>
30	<b>6</b>
28	<b>5,6</b>
26	<b>5,2</b>
24	<b>4,8</b>
22	<b>4,4</b>
20	<b>4</b>
18	<b>3,6</b>
16	<b>3,2</b>
14	<b>2,8</b>
12	<b>2,4</b>
10	<b>2</b>
8	<b>1,6</b>
6	<b>1,2</b>
4	<b>0,8</b>
2	<b>0,4</b>